

Hamazazpi

2019ko abendua



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala



**SARRAGOA AUZOTARREN ELKARTEA SORTU DA
ELKARRIZKETA: ITZIAR OLARTE, ZIAR APAINDEGIA
ZIGOITIA ETA VALL D'EN BAS, SENIDETUTAKO HERRIAK
ELIKADURA, ZAZI PROGRAMAREN HURRENGO ERRONKA
HEZIKIDETZA PROGRAMA MARTXAN DU GORBEIA ESKOLAK
SAN BITOR ETA MADALENA ERMITAK BERRESKURATU DIRA**



04



06



07

08



10



12

14

Hemen eta orain

- 03 Udala Facebook-en dago jada
- 04 Zigoitia eta Vall d'en Bass, senidetutako herriak
- 06 Hezikidetza programa martxan du Gorbeia Eskolak
- 07 Elikadura: ZAZI ekimenaren hurrengo erronka
- 08 Itziar Olarte San Juan, ZIAR Apaindegia
- 10 Madalena eta San Bitor ermitak berreskuratu dira

Kolaborazioak

- 12 Eguneko Arretarako Landa Zentroko berriak. Sendagai Naturalen Banku bat martxan
- 13 Zigoitiarrak.. **Isidro Saez de Urturiren** eskutik
- 14 Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulurekin**

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2019ko negua

Azala: Abadelaueta Etnografia Elkartea.

Editatzailea: Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Erredakzioa:

Mirian Biteri · Rosa Ortiz de Mendivil

Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com

Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.050 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08
Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:
www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Mairu Abesbatza y Oketa Alai Dantza Taldea txapelidunak!!!

Oketako dantzariak 2019ko Arabako Fandango eta Arin-arin Koreografia Txapelketa irabazi dute. Bigarren urtez

jarraian! Eta Mairuko abeslariak finalistak geratu dira ETBko Ahotsak saioan. Guzti guztiei, gure zorion beroenak!!!



Zigoitiko Udala Facebooken dago

Herritarren eta administrazioaren arteko zuzeneko komunikazio bide berri bat

Zigoitiko Udalak online komunikatzeko bide berri bat abiarazi du, Facebook orrialdeko profil berria, hain zuzen ere, zeinetara honako helbidearen bitartez heldu daitekeen: www.facebook.com/ZigoitikoUdala
Gauzak horrela, beraz, Udalak bere erabaki, plan, asmo eta jardunei buruzko informazioa eta datuak unean bertan herritarren

esku jarriko ditu. Udalerraren inguruko albiste, abisu, agenda, ekitaldi eta jardunei buruzko azken orduko edukiak eskainiko dira, besteak beste. Facebookeko orrialde hau hortaz, gobernu irekiaren ernamuina da, gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzak ekarriko dituen aginte-modua garatzeko tresna baliagarria, alegia.

2019ko Zergadunen Egutegia

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA

Borondatezko epea:

2019-11-01 _ 2019-12-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Abenduaren hasieran

ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROK

Eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar da.

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus

bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitia.eus (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

Ordaintzeko lekuak: Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren

Zigoitia eta Vall d 'en Bas, senidetutako herriak

'Gure Esku Dago Zubigoitia' taldearen proposamena izan da, udalbatzak onartutakoa



Vall d'en Bas udalerrria. Argazkia: **MAS GARGANTA landetxea.**

Zigoitiak senidetze akordio bat sinatuko du lehen aldiz beste udalerrri batekin: hain zuzen ere, Gironako Vall d 'en Bas-ekin (www.vallbas.cat). Ekimena 'Gure Esku Dago Zubigoitia' taldearen eskutik heldu da eta akordio ofiziala 2020ko lehen hilabeteetarako sinatzea aurreikusita dago, Zigoitiko udal gobernu taldeak azaldu duenez. 'Senidetze baten helburua da beste herri batekin harremanak ezartzea, maila guztietan; bi herrietako kulturen artekoak izango dira garrantzitsuenak, arlo guztietan ezagutzak eta kezak partekatzea ahaztu gabe', gehitu du.

Oraingoz, ez dago ezer zehaztuta, baina bi udalak elkarlanean ari dira hurrengo abiapuntu hauetanoinarritutakoprogramabatdefinitzeko: "gizarte, kultura, hizkuntza, ekonomia, kirol, turismo eta elkartasun-harremanak; genero-berdintasunaren balioak defendatzea; tartean, feminismoa; balio demokratikoak babestea, hala nola, adierazpen-askatasuna, erabakitze eskubidea, errepublika edo independentzia; hori guztia, herrikideen jarduerak bermatzeko

esparru gisa", azaldu du senidetze hitzarmenak. Gainera, "Zigoitiko eta Vall d 'en Bas-eko komunitateek mota guztietako harreman sozialak bultzatuko dituzte, lehen aipatutako jarduerak ahalbidetuz eta babestuz, eta arreta berezia jarriko dute oinarrizko eskubideen, demokraziaren eta erabakitze eskubidearen aldeko ekintzen defentsan".

Vall d 'en Bass

600 kilometroko distantzia dago Zigoitia eta Vall d 'en Bas udalerrien artean. Azken hau, Kataluniako haran zabalena eta emankorra da. Garrotxa eskualdean kokatuta, 90 '7 km2 ditu eta 3.029 biztanle. Lautada batean dago; bertan, duela 11.000 urte 'barratge' laku bat egon zen; hau da, Croscat sumendiaren laba isuriak Fluvià ibaian presa natural moduko bat sortu ondoren eratutako lakua. Nekazaritzan, abeltzaintzan, paisaian eta kulturaren duten aberastasunaz gain, Vall d 'en Bas udalerrian mendilerroak eta gailurrak nabarmentzen dira, hala nola, Cabrera dels Llancers, Freixaneda



Hostalets eta Joanetes herriak. Argazkiak: **Ajuntament de la Vall d'en Bas.**

edo Puigsacalm mendiaren tontorra, 1.515 metroko garaiera duena. Bertatik Kataluniako zati handi baten panoramika bikaina ikusi daiteke.

Vall d 'en Bas-ek ere garrantzi historikoa du, 'remença'-en lurraldea baita (nekazarien matxinadak, jaunen gehiegikerien aurkakoak). Udalerriak oraindik mantentzen du Francesc de Verntallat nekazarien buruzagia jaio zen tokiko masia. 'Remença' mugimenduaren omenez,

urtero antolatzen da 'Terra de Remençes' bizikleta martxa, Katalunia osoko jendetsuena. Vall d 'en Basek multzo historiko-artistiko bezala katalogatutako bi herri ditu: Mallol hiribildua, muino baten gainean dagoena eta mendeetan zehar Bas bizkonderriko hiriburu administratiboa izan zena; eta Hostalets de Bas herrigunea, jatorria Olotetik Vic-era zihon antzinako errege bidearen oinean dauden ostatu batzuetan duena.

Gure Esku Dago Zubigoitia

Euskal Herrian bada Gure Esku Dago izena duen elkarte, hiru printzipiotan oinarrituta dagoena: herri nortasuna, erabakitze eskubidea eta herritarron garaia. Herri berean bizi diren heinean, eta beste hainbat euskal herritan martxanjarritakodinamikarijarraipenaemateko beharraz ohartuta, erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduaren parte izan nahi zuen zigoitiar talde bat hasi zen biltzen 2016ko azaroan; erabakitze eskubidearen inguruan hausnartzea eta askotariko dinamika parte-hartzaileak antolatzea zuen helburu. Horrela sortu zen Zubigoitia elkarte. Hogei pertsona inguruk osatzen dute eta hamabostean behin elkartzen dira. Gainera, bileretara joaten diren pertsonez aparte, programa edo ekintza zehazetan parte hartzeko prest dauden lagun



gehiago badaude. Esaterako, Vall d'en Bas udalerriarekin senidetze proiektuan. 2020ra begira, Kataluniako udalerriarekin jarduera programa garatu eta bultzatzeaz gain, Euskal Herri osoan erabakitze eskubidearen aldeko sinadura bilketa batean hartuko du parte Zubigoitiak, Gure Esku Dago mugimenduarekin batera.

Hezkidetza programa martxan du Gorbeia Eskolak

• **Diagnosiarekin daude orain; amaitzean, memoria bat egin eta garatuko dute**

Bizpahiru urte egin behar da atzera hezkidetza programaren abiapuntua ulertzeko. Ikastetxeko zuzendari Marisa Urkizak azaldu du ikasgeletako tutoretza orduetan landu arren, jolastokian gertatzen ari zenaren inguruan “gero eta keza gehiago” jasotzen zitzutela ikasleen partetik; eta ostiralo zikloka egiten dituzten asanbladetan ere jolastokiarekin lotutako gatazkak behin eta berriz irteten zirela. “Zelaiaren erabilerarekin eta baloiak duen indarrarekin kezkatuta geunden, erabileran nolabait mugatuta bagenuen ere. Ordurako baloirik gabeko egun bat genuen eta horretan betiko umeek aspertu egiten zirela ere esaten ziguten”, adierazi du Urkizak.

Egoerari bueltan eman nahian, neurri berriak hartzen hasi ziren. Esaterako, iaz, futbola jolastoki ondoan dagoen zelaira ateratzea erabaki zen, eta ikastetxekoa saskibaloian, soka saltoan edo bestelakora erabiltzea. Baina, horrekin ere “nahikoa ez zela” ikusi zuten. Gauzak horrela, eskola kontseilu batean adostu zen ‘Patio Hezitzailea’ izeneko batzordea eratzea, gurasoz eta irakaslez osatuta dagoena.

Patio Hezitzailea

Handik gutxira, jolastokiaren gatazkari zein hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioaren inguruan antolatzen diren askotariko jarduerak guztiei “forma emateko” eta “komunitate guztiaren parte-hartzea lortzeko” datozen lau urtera begirako hezkidetza programa garatu eta Jauraritzako Hezkuntza sailean aurkeztu zuten.

Planaren helburu nagusia honakoa da: “Udalerriko hezkuntza eta komunitatea, ikasleak, irakasleak

eta familiak emakumearen eta gizonaren arteko berdintasunean sentibilizatu; baita genero-berdintasunean, aniztasun afektibo-sexualean, elkarrekiko errespetuan, autonomian eta erantzunkidetasunean oinarritutako neska-mutilen arteko harreman eredu berriak sustatzean, emakumearen kontrako indarkeria saihestuz”. Planak Jauraritzaren oniritzia jaso du. Plangintza martxan jartzeko “hutsetik hasi behar” izan dira berriro. Diagnostika egiten dabilta orain. Jolastokiaren atalari dagokionez, ‘Patio Hezitzailea’ batzordeak jolastokiari buruzko inkestak bidali dizkie eragile guztiei eta dagoeneko jaso ditu; emaitzak aztertzen dabil orain. Bestetik, batzorde berak ikasgeletan bikoteka irakurtzen duten jarduerarako testu bat sortu du, bikoteek landu dezaten; asmoa da Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzak bere jolastoki “ideala” diseinatzea; hortik ateratzen dena praktikara zelan eraman pentsatu beharko du batzordeak. Horrez gain, Garaion kooperatibarekin elkarlanean, jolastokia eraldatzeko urratsak ematen ari dira.

“Betaurreko moreak ipinita”

Eskola mailan, dokumentazio guztia “betaurreko moreak ipinita” eguneratzen dabilta eta sentibilizazio kanpaina bat ere jarri dute martxan. Azken horretarako, Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun zerbitzuarekin jarri ziren harremanetan eta baita Zigoitiko Udalarekin ere. Hainbat formakuntza saio egin dituzte ikasle, irakasle eta gurasoekin.

Diagnosiarekin amaitzean, memoria bat egin beharko dute, eta hori garatu.



Zazi programaren hurrengo erronka: elikadura

Zigoitia Zaintzen osasun komunitario programa honetan herritarrek erabakitzen dituzte landu beharreko gaiak



ZAZI (Zaintzen Zigoitia) programa fusio hutsa da. Osasuna, liburuak, filmak, dokumentalak eta, batez ere, pertsonak uztartzen dira ekimen honetan. “Garrantzitsuena gure giza baliabideak dira”, azaldu dute Javier Arbuluk eta Luis Rodriguezek, Zigoitiko liburuzainak eta medikuak, hurrenez hurren. Beraiekin batera, honako profesionalak hartu dute parte: Arantza Diaz de Arcaya, Osasun Zentroko oraingo erizainak; Aurkene Garcia de Albeniz, aurrekoak; Laura Perez, AOU Txagorritxun erizain gisa lan egiten duen zigoitiarrak; Leire Ferro, pediatra gisa kanpoan lan egiten duen zigoitiarrak, eta bera bezala dabilta beste boluntario batzuek. Ikusten den moduan, garatzen ari diren programak komunitate osoa nahasten du. Helburua ere argi dago: “Osasuna hobetzea. Zigoitiarrak ahalduntzea eta guztion artean gure ongizateaz arduratzea nahi dugu”, azaldu dute. Horretarako, Luisek udal liburutegiko liburu bat erreztatzen dizun bitartean, Arantzak, Laurak eta Leirek Lehen Sorospenei buruzko tailerra dinamizatzen dute (promozio bideoarekin eta guzti!); eta Javierrek ‘Aulki hutsak’ doluari eta

heriotzari buruzko dokumentalaren proiektioa antolatzen du, Iñaki Peña zuzendariaren parte-hartzearekin. Aipatutakoak azken urtean landutako ekintza batzuk dira; eta horietako batzuk Gorbeia Eskolara ere iritsi dira. Esate baterako, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailako haurrek egin duten osasun tailerra.

Harrera bikaina izaten ari da programa. Lehenengo bilerara 50 bat lagun joan ziren, eta bertan ‘erein’ zituzten aurrerantzean ZAZIn garatzen ari diren gaiak. Ondoren deitutako saio praktikoetan, batez besteko, 30 lagun hartzen ari dira parte. Gauzak horrela, arduradunen asmoa jarraitzea da. Gainera, asko dira osasunarekin lotutako zigoitiarrei kezkatzen eta interesatzen zaizkien gaiak. “Laster elikadura jorratuko dugu; askorako ematen duen gaia, hain zuzen ere”, amaitu du esaten medikuak.

Info gehiago: Osasun Zentroan eta udal Liburutegian.

Eta Lehen Sorospenei buruzko bideoa ikus dezakezu hemen: <https://youtu.be/Fik48UAlInY>

Letonak eta Zaitetik San Bitor ermita berreskuratu dute

Etxaguenek erromeria egin du Madalenan



SAN BITOR. Ermita izateaz gain, antzinako Zaitetik gaztelua mendi-babeslekua ere bada, eta bertatik Zigoitiko panoramika bikaina ikusten da, Arrato eta Gorbeia artean.

Testua eta argazkiak: **Abadelaueta Etnografia Elkartea**.

Letona eta Zaitetik Administrazio Batzarrek, Zigoitiko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, San Bitor ermita -Zaitetik Gaztelua izan zena- birgaitu dute. Bestalde, desagertutako Ermuko Santa M^a Magdalena ermitan ere arkeologia-lanak egin dira, bere jatorrizko kokalekua berreskuratzeko. Bi proiektuek Abadelaueta Etnografia Elkartearen laguntza izan dute.

San Bitor, abere eta lurren babeslea

Pasa den azaroan, Letona eta Zaitetik herriek berreraiki zuten 1980an sute batek suntsitu ondoren abandonatuta geratu zen ermita. Eta ez da lehenengo aldia. Karlistaden ondoren, 1818an eta 1886an, bi herri hauek, Olanoren laguntzarekin, zaharberritu zuten. Horrela ageri da aipatutako azken datan hiru herrietako errejidoreek sinatu zuten dokumentu batean. San Bitor Arrato mendilerroan dago. Zehazki, Burdin Aroko garaian aztarnategi bat egon zen tokian: Urisoloko Kastroan. Baselizaren kokalekuan Zaitetik Gaztelua zegoen; honek XII. mendean Nafarroako Erresumaren muga markatzen zuen eta bere ibilbideak zaintzeko gotorleku estrategiko garrantzitsua izan zen. Horrela gertatu zen Gaztelako Alfontso VIII.aren tropek Gasteiz inbaditu zuten arte, Zigoitiko

lurraldea bere koroaren azpian geratuta, 1200 urtetik aurrera. Hori bai, gazteluak leku estrategikoa izaten jarraitu zuen. Erdi Aroan, mendilerroa Gebara eta Mendozatarren arteko 'Arratoko guduaren' lekukoa izan zen (XII. mendean), kastrotik gertu dagoen 'Undako Goba'-k edo 'Berrogei Zaldun'-ekoak gogorarazten duen bezala.

XVII. mendearen erdian, inguruko herriek baseliza eraikitzea erabaki zuten, San Bitor-i, ganadu eta lurren babesleari, sagaratua. Abandonatutako gazteluaren hondarrak aprobetxatu zituzten, eraikin zaharraren hormak ermita eraikitzeko erabiliz. Zaintzeko eta kontserbatzeko konpromisoa hartu zuten, bezperan jai bat eginez (abuztuaren 26an) eta ermitan ospakizun bat eginez, gaur egun ere Letona herriak antolatzen jarraitzen duena.

1980angertatutako sute batek berrirosuntsituta, Letona eta Zaitetik herriek, lurraren eta ermitaren jabeek, berreraiki dute, Zigoitiko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin. Abadelaueta Talde Etnografikoak eta Letona eta Zaitetik Administrazio Batzarrek izan dira berreskuratzearen sustatzaileak. Lanak Zigoitiko Burubelarri eta Laskua enpresek egin dituzte.

Ermuko Santa María Magdalena

Oketa mendiaren inguruan, "Gorbeyako Sonsierra" barruan, parke naturalean, Ermuko Santa María Magdalena ermita zegoen. Etxaguen herriarena zen eta XVI. mendetik datatuta dago. Inguruko herriek eta beste leku batzuek osatutako kofradia garrantzitsu bat izan zuen. Bere festa egunean (uztailaren 22an) biltzen zen, meza ospatuz; kontuak berrikusten ziren eta karguak berritzen ziren; jarraian, bazkari bat zegoen, geroago "urdaiazpiko pernil" batera mugatu zena.

Gerra zibilaren garaian abandonatu zen eta basoak estalita bukatu zuen. Duela gutxi aurkitu egin da, Angel Martinez eta Jose Rodriguez arkeologoen zuzendutako taldearen lanari esker. Ermitako oinplanoa agerian uzteko lanak egin dira, Abadelaueta Talde Etnografikoaren laguntzarekin eta Arabako Foru Aldundiaren eta Zigoitiko Udalaren diru laguntzekin. Gaur egun, finkatuta geratu da eta argibide-taula bat jarri da.

Ermita honetan eta baita gertuko iturri sendatzailean ere – haurrek ura edanez "hitz egiten apurtzen" laguntzen zuena –, inkontziente kolektiboaren azpiko sinesmenak nahasten dira, garai hartan nagusi ziren kristauekin lotuta, herriko erlijiotasunean adierazita. Izan ere, leku bakarti eta huts honek - ermua, basamortua- izaera 'sokratua' zuen. Eta gogoratzen zituen basoaren misterioak, non mitologiaren arabera, lamiak, sorginak, basajaun eta Mari, euskal mitologiaren jenio femeninoa, bizi ziren. Sinesmen eta erritu hauek, ondoren, kristautuak izan ziren santuen bidez; kasu honetan, Ermuko Santa María Magdalenenaren bitartez. Bere irudia, XVI. mendearen amaierakoa, Etxaguen parrokiaren gordetzen da.



Helikoptero batek eraman zituen materialak, sarbidea ez baita egokia ibilgailuentzat.



Etxaguen herriak interes eta babes handiz jarraitu zituen lanak, eta erromeria animatua egin zuen Madalenaren jaietan.

Zigoitiko ermandadeak 40 ermita baino gehiago izan zituen bere hamazazpi herrian. XVI. eta XVII. mendeen artean eraikiak, horietako batzuk kontserbatu ziren XX. mendera arte. Gero eta abandonatuagoak, gehiengoak eraistea erabaki zen. Gaur egun, honako hauek mantentzen dira: Santa Luzia Teparua enblematikoa, Ondategin; San Bartolome, Maurgan (duela gutxi zaharberritua); Gorostizako San Pedro; San Roke, Gopegin (duela urte batzuk berreraikia); San Antonio, Muruan (orain herri horretako parroki dena); San Esteban, Etxabarri Ibiñan eta erreportaje honetan aipatutako Ermuko Santa María Magdalena eta San Bitor.

Itziar Olarte San Juan, ZIAR Apaindegia

"Landa eremuari bizia eman behar zaio; nik gustuko dudan horretan eta nire herrian egiten dut lan. Zorionekoa naiz!"



20 urterekin, gauzak oso argi ditu Itziar Olartek. Beti izan du gogoko estetika eta ile-apainketa eta dagokion gradua egin ondoren, azkazalen teknika ere ikasi du. Bere aisialdian gustuko du "mendira joatea, lagunekin egotea, zinema eta nire lanerako teknika berriak praktikatzea. Ogibide honetan beti ari zara ikasten", azaldu digu. Ziar Apaindegia egia bihurtutako ametsa da; Gopegiko Uriosolo kaleko udal lokala lortzeko aukera sortu zenean, ez zuen pentsatu ere egin. "Nire indar guztiak jarri nituen hori lortzeko. Uste dut landa eremuari bizia eman behar zaiola. Jende gehiago animatzea nahi nuke. Nik gustuko dudan horretan eta nire herrian egiten dut lan. Gasteizen egiteko aukerak izan ditut, baina Zigoitiaren alde egin dut apustua. Zorionekoa naiz!", aitortu du.

Zer da Ziar Apaindegia?

Edertasun eta ongizate zentroa da. Bertan eskaintzen ditut ile-apainketako zerbitzuak (moztea, orraztea, tindatzea eta bizargintza) eta estetikakoak (depilazioa, manikura, pedikura, masaje lasaigarriak, etab.) Produktu naturalekin egiten dut lan. Eta niretzat funtsezkoa da ere arreta pertsonalizatua ematea eta giro atsegin eta abegikorra sortzea.

Nolakoak dira zure bezeroak?

Adin eta genero tarte zabalera zuzenduta dago: haurrak, gazteak, gizon eta emakume helduak... Eguneko Landa Zentroan ere eskaintzen ditut nire zerbitzuak. Ikusten duzunez, Ziar Apaindegia publiko guztientzat da, eta ez

bakarrik Zigoitiarrentzat, baizik eta beste udalerrietako herritarrentzat ere. Garrantzitsua iruditzen zait honelako zerbitzu bat Zigoitian eskaintzea; orain arte, herritarrak Gasteizera joan behar ziren edertasun beharrak asetzeko, baina dagoeneko badute beste aukera bat.

Nondik datorkizu ekintzaile-etorria?

Egia esan, ez dakit. Hasieran ez nuen nire burua enpresari gisa ikusten; gustuko nuen zerbait eta jendeak estimatzen zuena egin nahi nuen. Nire asmoa zen negozioa nik neuk kudeatu ahal izatea. Aitortzen dut, halaber, behin baino gehiagotan pentsatu dudala: zein txortan sartu naizen!, baina segituan berreskuratzen nuen jarraitzeko ilusioa. Eta orain bai, pertsona

askoren laguntzarekin, gazte ekintzailea naizela esan dezaket.

Erakundeen laguntzarik izan al duzu?

Bai, Zigoitiko Udalaren Enplegu Planari aurkeztu nion proiektua. Aukeratua izan zen eta 4 urtez hobaridun alokairua duen udal loja bat utzi didate. Gainera, gestio guztiekin lagundu didate. Bestalde, enpresak sortzeko eta negozioa kudeatzeko aholkularitza eta prestakuntza jaso dut Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Mairuelegorreta Landa Garapen Elkartearen aldetik, eta horrek nire proiektua berme handiagoekin martxan jartzeko oinarritzko nozioak eta jarraibideak izatea ahalbidetu dit.

Gorbeialdeko beste ekintzaileekin harremanik al duzu?

Bai, hori nabarmendu nahi dut gainera. Eta ez bakarrik eskualdeko beste ekintzaile batzuekin, baizik eta negozio ezberdinak dituzten pertsona gehienekin.

Irailaren 18an ireki zenuen; zer balantze egiten duzu lehen hilabete hauetaz?

Oso pozik nago. Oso ondo hasi naiz lanean; espero dut horrela jarraitzea luzaroan. Zigoitiaren erantzuna oso positiboa izan da, bai nire ametsa gauzatzeko helarazitako laguntzagatik, eta baita nire zerbitzuak erabiltzeko orduan ere. Irekiera aurretik eta orain arte, era guztietako laguntzak, animoak, aholkuak jaso ditut... Oso babestuta sentitu naiz, ez naiz inoiz bakarrik egon.



FANTASIA, GORE, festa makillajea, kalekoa... alor guztiak lantzen ditu Ziar Apaindegiak.



AZKEN JOERAK. Itziar ile-apainketa eta estetikan graduatua da, eta azkazalen teknikaria ere bada.

Ziar Apaindegia

Urisolo 4, behea. Gopegi
Aurretiko hitzordua: T_945 36 90 81
Facebook: www.facebook.com/itziar.olarte.9

Ordutegia

Asteartetik ostiralera: 9: 30etik 14: 00etara eta 1
30etik 19: 00etara.
Larunbatetan: 9:00etatik 14: 00etara.

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentrotik, EALZtik, informazioa

Sendagai Naturalen Banku bat sortuz



Herri jakinduriak, mendeetan zehar ahoz aho transmitituta izan denak, tradizioak, sinesmenak, istorioak, harreman moduak... mantentzea lortu du. Horrek aberastu ditu herriak arlo ezberdinetan; besteak beste, gizarte mailan, kulturalki eta ekonomikoki. Sare sozialak bezalako aurrerapen teknologikoen (informatika) eta komunikazio modu berriek urrezko aukera eskaintzen digute ezagutza horiek gordetzeko, belaunaldi berriek eta egungo haur eta gazteek erabiltzeko eta gozatzeko.

Zigoitiko EALZko adinekoen taldea hasi da biltzen osasunarekin eta erremedio naturalekin lotutako jakintzak eta errezetak, garai batean gaitz eta min ezberdinak sendatzeko erabiltzen zituztenak. Eginkizun horretan udalerriko Kultur Zentroko liburutegiaren eta Osasun zentroaren kolaborazioa izan du.

Sortzen ari den material guztia bildu eta hautatu ondoren (zeregin zaila), liburutegian gordeko da 'datu eta irudien banku' batean. Proiektuaren helburua bikoitza da: batetik, herriz herriko ezagutza hori guztia erregistratzea, gaitz zehatzak tratatzeko orduan erabili ahal izateko

(lan egiteko materiala bihurtuz); eta, bestetik, gaian interesa duen edonork kontsultatu ahal izatea.



Oso proiektu neketsua da, eta oso epe luzerakoa. Baina lehen pausoa eman da jada: Ondategi herrian dagoen Casilda etxearen baratze eta inguruetara irteera bat egin dugu; bertan ikusi ditugu hainbat gaitz sendatzeko erabil daitezkeen landare asko.

Zigoitiko EALZn lan interesgarri hau garatzen jarraitzen dugu eta ematen ditugun pausoen berri emango dugu.

Isidro Saenz de Urturiren eskutik

Eskola, Zigoitian



XVII. mendetik, Zigoitian oso eskola eta ikasle onak egon zirela erakusten duten datuak badaude. Batzuk oso kontulari garrantzitsuak izan ziren Sevilla eta Cadizko Indiarren Etxeetako kontratazio eginkizunetan, eta oso estimatuak izan ziren beren jakituriagatik eta zintotasunagatik. Hiri horiek bisitatuz gero, deigarriak dira zigoitiarren izenak dituzten kaleak. Beste batzuk Erregeetako idazkariak eta gobernuko goi kargudunak izan ziren. Horrek adierazten du ere Zigoitian irakasle onak egon zirela.

Kasu hauetan gertatu ohi den bezala, ikastetxe asko Ameriketara emigratutako pertsonen fundatutakoak ziren. Dirua egin zuten eta euren herriarentzat zerbait ona egin nahi izan zuten: ilustratutako pertsonak hezteko eskolak sortu. Batzuek bizirik egin zuten dohaintza; beste batzuek, berriz, hil ondoren, eta dirua beti ez zen iristen adierazi zutenerako. Hainbat erreklamazio daude zentzu horretan. Lehen gertatzen ziren

horrelakoak, eta baita gaur egun ere.

Ikastetxe garrantzitsuenetako bat Muruan egon zen, Ortiz de Zarate familiak sortua. 'Barrutia' deitutako gunean zegoen, bidegurutzetik ezkerrean sartuz. XIX. mendean jaiotako auzokideek Santiago tabernan kontatzen zuten ikastetxearen hondakinak ezagutu zituztela eta entzunda zutela eraikin karratu bat zela, arkudun patio handi bat zuena (klastroa). Frantziarren aurkako gerraren ondoren itxi zen zentroa; sustatzaileak funtsik gabe zeuden, eta, XX. mendean, Ortiz de Zarate familiak Muruako jauregia eta lursail batzuk saldu behar izan zituen. Zigoitiko ikertzaile handi Atanasio Vergararen arabera, Espainia osotik etortzen ziren bertara ikastera. Gainera, ikasketetan nabarmentzen zen gazte zigoitiar oro, 14 urterekin sar zitekeen zentroan, doan ikasteko. Horregatik atera ziren hainbeste jakinduria gizon Zigoititik; gure luraren izena Napoli, Filipinak, Amerikara... eraman zutenak.



ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek'.

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen Zigoitiarrak saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.



"Goazen denok, goazen denok, dantzariak hiri ilunean harrotzen ikustera..."

Testuak eta argazki hautaketa: **Javier Arbulu**



Basozaina oker egotea espero dut. Lagunekin Artzegein edaten ari zela esan zidanean: "urtarrilaren amaierara arte ez da elurrik aurreikusten". Pozik zegoen. Taberna osoko jendeak zoriontsu zirudien. Adinduek korroan edaten zuten, umeak kuadrilla ezberdinen inguruan lasterka ari ziren, eta gazteak sartu eta irten egiten ziren indiar ilaran, jateko makinan gosea ase nahian.

Atsegin dut pentsatzeak zein aurpegik jarriko lukeen Oteizak, esango banio gau hartan Zigoitiko kuadrillek osatzen zuten zirkulua gure euskal *cromlech*-aren irudikapen bat zela; emakume eta gizonak euren txikitxoak edanez eta euren gorputzek osatzen duten espazioaren barrualdera begira; noizean behin, haur bat zeharkatzen, barruan jolastuz edo oso geldirik geratuz.

Ziur aski erantzungo lidake: zoragarria, baina zer gertatzen da mutil horiekin? Zergatik ase behar dituzte gosea eta egarria makina

saltzaille batean? Zer da duten gose hura? Ez al dago liburutegian "benetako" gosea eta "benetako" egarria zerbitzatuko dituen liburu interesgarririk? Ez al dago beren "benetako" gosea eta "benetako" egarria asetzen dituen liburu interesgarririk liburutegian? Ez al dago beren "benetako" gosea eta egarria arintzen lagundu diezaieketen emakume eta gizonik? Akaso liburuzain madarikatuak ez al daki bere lana egiten?

Eta isilik geratuko nintzateke, batzuetan nik ere galdera hori egiten baitiot nire buruari. Horrelakoetan, bururatzen zaidan gauza bakarra da beraiek direla beren goseari eta egarriari aurre egin behar dietenak, beti horrela izan baita. Itxarrotea besterik ez dago, noizbait on egin digun elikagaia hatzaz seinalatzea, ahal bada fresko eta garbi mantentzea, eskatu ahal duten uneari adi. Hori bai, hori gertatzeko guk geuk gure buruari galdetu behar izan diogu zeintzuk diren on egiten digun elikagaik eta

zeintzuk diren gaizki sentiarazten gaituztenak, zer den ondo eta gaizki sentiaraztea, eta ea guztiontzat balio duten, une oro. Nondik gatoz, bada? Ez al gaude oraindik borrokan? Batzuetan ahaztu egiten dugu "nerabeak" deitzen ditugunak, egia esan, benetan garena erakusteko modu zintzoa dela: zerbait bizia eta misterioitsua, ilunpetan dagoen sukaldaritza. Aski oker gabiltza gauzari konplexutasun apur bat kendu nahi badiogu, zeren, bihozmindu arren, munduak ez du partekatzen gure segurtasun eta ziurtasunaren irrika.

Finlandiako argia

Etxean nago elurraren zain. Hiru ipuintxo irakurritz espero dut: Truman Capoteren *Gabonetako oroitzapen bat*, Dylan Thomasen *Galesko haur baten Gabonak* eta Wren de Austerren *Auggieren gabonetako ipuina*. Haur bat eta emakume bakarti bat, fruta pastela, arrotzekiko gertutasuna, whiskia, kantuak, katuak, baztertutako bihotza, postariak elurretan urruntzen... hori da ipuin hauetan aurkitzen dudana. Eguneroko gauzez hitz egiten dute baina argi berri batek ukitzen du egunerokoa, norbaitek dena lehenengo aldiz ikusiko balu bezala.

Finlandian, udazkenaren zati handi bat berritutako argi horren zain pasatzen da jendea. Iluntasunean ostarteak biderkatzen dituen elurrak ekartzen du, eta horrekin batera baita iluntasunak berak ere. Badakite iritsiko dela, baina elurrak bere denbora hartzen du. Azkenean, gertatzen denean, milaka izar bezala erortzen da, bere dantzarekin erritmo motelago bat hurbilduz. Argi eta erritmo horrenpean baloratzen dute batzuek beren egunetako miraria, eta beste batzuek beren tristurak. Horregatik, Eguberrietako ipuin bat idatzi beharko banu, artzainak Abadelaueetakoak izango lirakeke, eta nire lankideak ere; aingeruak, Zigoitiko kontalariak, ZAZlko jendea...; astoa eta mandoa herri honetako jendearen berotasun naturala; Herodes, eguraldia, ajea, errua. Herodes, gure ziurtasun eta beldur guztiak. Horregatik daukat elur gogoa, munduaren abiadura gelditzen duen elurra dut gustuko. Sentimendu berekoi eta ergel bat, ziur bainago



Artzegei taberna.

arrote edo errefuxiatu bat izango banintz ez nuela batere maitatuko elurra. Ezer ez da, berez, ona edo txarra. Udazkenean ikusteko irrikaz dauden finlandiar berberak neguan "kaka zuria" esaten diote, eta denbora horretan guztian betetzen diren elurrezko zaborteak dituzte. Gainera, segur aski ezerk ez du mundu hau geldiaraziko. "Txikitari bere zentroan finkatutako izar bat gara, gero lekualdaketaaren abiadura hutsaltzen gara", esan zidan egun batean Juan Luisek. Hala eta guztiz ere, grabitatearen musikarekin dantzatzen duen elur horrek, nire burua pixka bat egokitzen du, bals baten erritmoan mugituz. Ez naiz beldur galtzen joateko, beldur naiz dantzatzen ez egiteko.

Hori dela eta, Tom zaharraren *Tom Traubert's Blues "Waltzing Matilda"* entzuten dut. "Gabonak dira Tom Waits erakusleihen batean kantatzen", esan zidan egun batean Javitxinek. "Bilatzen duzun eta aurkitzen ez duzun hori, hitzontzi nazkagarrietatik babesten zaituen poesia da", idatzi zuen nire maisuak Finlandiara bidali zuen gabon postal batean. Hala uste dut. (Etxe-aldaketa batean, Javitxinek nire postala zakarrontzira bota zuen nahi gabe. Nire aldetik, batzuetan hitzontzi bat sentitzen naiz).

Artzegeitik irtetea konturatu nintzen leihok azaroaren iluntasunean erretzen zirela. Iluntasuna oso handia eta inguratzailea zen. Dena bere menpe zegoela esan zitekeen, baina baita ilunpe hura hor zegoela ere leihoretako argia nabarmentzeko.

Sarragoa auzotarren elkarteak sortu da

Hausnarketa prozesu baten ondoren, herritarren elkarte bihurtu da 'Sarragoa Zigoitiko Auzokideen Elkarte' izenarekin. Bere helburuen artean nabarmentzen dira " herritarren eztabaida eta parte-hartzea sustatzea, interes orokorreko gai inguruan: udal aurrekontua, hiri planteamendua, udal zerbitzuen kudeaketa, jaiak, etab.", adierazi digute elkarte arduradunek. Izan ere, lan egiten dute "ekonomia, gizarte, kultura, ingurumen eta hezkuntza mailan dauden beharrak detektatzeko; horien gainean lan

egiteko eta dagokion erakundeari irtenbide zehatzak proposatzeko". Sarragoa-ren filosofia "auzotasun ona bultzatzen duten oinarrizko balioetan errotzen da: errespetua giza eskubideekiko, aniztasunarekiko, norberaren kulturarekiko, ingurumenarekiko...". Bere helburuak lortzeko, hitzaldiak, tailerrak eta jarduerak antolatuko dituzte. Zigoitiko herritar guztiak daude gonbidatuta.

Kontaktua: sarragoataldea@gmail.com

LÍNEA 1 ZIGOITIA - VITORIA - GASTEIZ

ZESTIFE	ACOSTA/KOKOIZTA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ETXABARRI IBINA	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERBE	BURIUAGA	BERRIKANO	APODANA	ETXABARRI IBINA	ETXABARRI IBINA (MG Gorbela CC)	VITORIA/GASTEIZ (Gorbela Estazio)
ASTELEHENETIK OSTIRALERA / LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>														
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26	
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56	
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26	
*	*	14:45	14:48	14:50	*	14:53	14:56	*	14:59	15:03	15:10	15:12	15:21	
*	*	16:15	16:18	16:20	*	16:23	16:26	*	16:29	16:33	16:40	16:42	16:51	
*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16	
*	*	20:50	20:53	20:55	*	20:58	21:01	*	21:04	21:08	21:15	21:17	21:26	
						22:10					22:19	22:21	22:30	
LARRUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>														
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31	
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21	
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31	
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36	

1 VITORIA - GASTEIZ - ZIGOITIA

(*Acercamiento: el autobús solo parará si las personas usuarias avisan con antelación)

VITORIA/GASTEIZ (Gorbela-Estación)	ETXABARRI IBINA (MG Gorbela CC)	ETXABARRI IBINA	APODANA	BERRIKANO	BURIUAGA	ERBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXABARRI IBINA (Zigoitia)	GOROSTIZA (Zigoitia)	ACOSTA/KOKOIZTA	ZESTIFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LINES A VIERNES LABORABLES >>>>>														
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*	*
14:00	14:09	14:11	*	*	*	*	14:28	*	14:31	14:33	14:36	*	*	*
15:30	15:39	15:41	*	*	*	*	15:58	*	16:01	16:03	16:06	*	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*	*
20:10	20:19	20:21	*	*	*	*	20:38	*	20:41	20:43	20:46	*	*	*
21:30	21:39	21:41	*	*	*	*	21:58	*	*	*	*	*	*	*
LARRUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>														
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*	*